



GOIEKIKO ENPRESA EKIMEN BERRIENTZAKO ZERBITZUA KONTRATAZIOAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

KONTRATAZIOAREN BEHARRA ETA HELBURUA

Goiekin 20 urte baino gehiago daramatzagu negozio-idea bat duten ekintzaile askorekin lanean, eta beren enpresa-proiektua gauzaten laguntzen diegu. Proiektuaren garapen-fase guztietan eskaintzen diegu laguntza eta aholkularitza.

Goierriin, industria ahalmen handiko ingurunea izanik, ekimen berriak, berritzaileak eta balio erantsi handikoak motibatu eta bultzatzen ditugu. Enpresa-sarearen etorkizuneko jasangarritasuna lortzeko haziak landatzen ari gara.

Gaur egungo egoera ekonomikoak eta murgilduta aurkitzen garen proiektu eta ekimenetan gero eta proiektu gehiago, lan bolumen handiago eta enpresa ekimen berri gehiago sortzea egiten ari da. Egoera on honen adierazle urte hasieran martxan jarriko den New Business Factory eraikin berria izango da, non bertan, balio erantsi altuko eta estrategikoak diren ekimen berriak garatzeko eta kokatzeko gunea izango da. Bertan, alde batetik, 4 laborategi-tailerrez osatua egongo da, eta beste alde batetik, 15 bulego egongo dira ekimen berriei behin-behineko kokapena eman ahal izateko.

Beraz, eta aipatutakoa kontuan izanik, etorkizuneko behar hauei aurre egiteko gaur egungo enpresa ekimen berriko (Inkubategia) zerbitzuak laguntza behar du lan karga guztiari ahalik eta egokien eta behar duen kalitateaz erantzuteko.

PROZEDURA

Irekia

LOTEAK

EZ. Zerbitzuaren ezaugarriak kontuan, erakunde bakarra kontratatzea beharrezkoa ikusten da.

LIZITAZIO AURREKONTUA

Kontratuaren gehienezko prezioa urteko 50.000 € + BEZ

KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebetez (1) luzagarria.; beti ere, bi aldeek kontratuaren iraupen epea bukatu baino 2 hilabete lehenago idatziz adosten badute.

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko epea kontratuaren urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango da.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Proposamen ekonomikoa 35 puntu arte.
- Memoria teknikoa: 60 puntu arte.
- Hobekuntzak: 5 puntu arte.

2018ko abenduaren 5ean